

# KIDE BERRIAK OGP EUSKADI FORO ERREGULARREAN

## Sozietate zibilaren proposamenak egiteko gaitasuna indartzeko prozesua

### 1. ZERGATIK PROZESU HAU

[Foro Erregularrak 2019ko urriaren 21ean egindako bileraren aktan](#) jasotakoaren arabera, 2019. urte amaieran **sozietate zibilaren proposamenak egiteko gaitasuna indartzeko prozesua hasi zen Foro Erregularrean**. Prozesu horren barruan, kideetako batek utzitako hutsunea bete behar zen eta sozietate zibilaren beste hiru erakunde gehitzea proposatu zen. Bi elementu hartu ziren kontuan erabaki hori hartzeko:

- Foro Erregularra diseinatzean parekotasuna errespetatu da; hala ere, bileretan parekotasuna benetakoa izateko aukera emango duten erakunde berriak sartu behar dira, kontuan hartuta sozietate zibileko erakundeek parte-hartze irregularragoa izaten dutela Foro Erregularraren bileretan, haien jarduera nagusiari osatzen zaion parte-hartzea izaten baita.
- IRM taldearen diseinua ebaluatzeko txostenak gomendatzen du Foro Erregularra indartu behar dela sare-erakunde bidez edo gaitasun tekniko jakina duten erakunde bidez —hau da, proposamenak egiteko gaitasun teknikoa dutenak eta Foro Erregularrean sozietate zibilaren proposamenak egiteko gaitasuna handituko duen lan-espazio propioa garatzeko gaitasun teknikoa dutenak—.

### 2. LANTALDEAREN ERAKETA

Foro Erregularrak urriaren 21ean egindako bilera **onartu zen proposamena**, eta prozesuari ekiteko **lantaldea eratzea ere erabaki zen**. Lantaldea osatzeko kide gisa aurkeztu direnak:

- Mikel Barturen (Sareen Sarea)
- Ana Molina (Mestiza elkarte)
- Maialen Olabe (EGK – CVJ)
- Arantza Otaolea (Foro Erregularraren presidentekidea)
- Goizalde Atxutegi (Innobasque), lantaldean koordinazio-lanak egingo ditu

### 3. HARTUTAKO ERABAKIAK

Lantaldea 2019-11-18an bildu zen Bilbon<sup>1</sup> (Sareen Sarearen egoitza), eta honako erabaki hauek hartu zituen:

Miren Fernandez de Landa andrea **ORDEZKATZEA**ri buruz:

- Alberto Ortiz de Zarate jauna ordezkatzeko prozesua kontuan hartuta, Miren Fernandez de Landa andrearekin jarri behar da harremanetan eta galdetu behar zaio berearen antzeko profila duen norbait izendatu nahi duen Foro Erregularreko kide.

<sup>1</sup> **Bertaratuak:** Maialen Olabe (EGK), Mikel Barturen (Sareen Sarea), Arantza Otaolea (Bilboko Emakumeen Kontseilua) eta Goizalde Atxutegi (Innobasque – sozietate zibilaren idazkaritza teknikoa Foro Erregularrean). **Ez da bertaratu:** Ana Molina (Mestiza elkarte), baina idazkaritza teknikoaren bitartez eman du bere iritzia.

- Harekin egiaztatu behar da ea egokia izan daitekeen AFaren proposamena: Joseba Terreros (landa-ingurunea, arabarra) sartzea Foro Erregularrean. Agian haren interesekoa da.
- Beste proposamenik egiten ez bada, taldeak ontzat jo du Joseba Terreros Foro Erregularrean sartzea.
- Arduraduna: Goizalde Atxutegi

#### **KIDE BERRIEI** dagokienez:

- **Hiru erakunde berri** sartuko dira Foro Erregularrean
- Honako erakunde hauei **proposatuko zaie** sartzeko:
  - Eusko Ikaskuntza – Foro Irekiak proposatuta. Lurraldean oso errotuta dagoen erakundea da, eta ezagutza irekia eta modu parte-hartzailean sortzen du. Gainera, oinarri sozial zabala eta aniztasun ideologikoa dituen erakundea da. OGPren aurrean planaren hautagaitza babestu zuen erakundeetako bat izan zen.
  - Unicef Euskadi – Elsa Fuente. Erakunde hori modu aktiboan ari da parte hartzen konpromiso-taldeetan, eta Foro Erregularrean ez dagoen ikuspegi bat jasotzen du (haurrena).
  - Asociación Gamaker. Foro Erregularreko kide izateko deialdi irekian parte hartu zuen erakundea da. Sormena eta herritarren aktibazioa (maker mugimendua) bezalako balioak lantzen dituen tokiko elkarte baten ikuspegia ematen du.
- **Kide berriak sartzeko proposamena honela egin zen:**
  - Arduradunak:
    - Eusko Ikaskuntza – Kontaktua egingo du Mikel Barturennek
    - Unicef Euskadi – Kontaktua egingo du Arantza Otaoleak
    - Gamaker elkarteak – Kontaktua egingo du Maialen Olabek
  - Eman beharreko mezuak:
    - Zer dira OGP eta OGP Euskadi plana
    - Foro Erregularraren zeregina; zergatik egin den proposamena (sozietate zibilarren rola indartzea, proposamen-gaitasuna hobetzea ...) eta zergatik gonbidatu den erakunde hori (zergatik haiek).
    - Zer esan nahi duen hark parte-hartzea: hiru hilean behin bilera bat Foro Erregularrean, sozietate zibilarren alde aurretiko bilera, dokumentazioa kontrastatu eta irakurtzea (aurrez aurre eta postaz), bileren ordutegia, txandakako bilerak (prestasuna).
  - "Harrera" bilera egiteko datak – zehaztu gabe.

#### **4. GONBIDATU ZIREN ERAKUNDEEN ERANTZUNAK**

---

- **Joseba Terrerosek, Arabako Kontzejuen Elkarteko (AKE)** presidentea, Foro Erregularrean parte hartuko duela eta bertan sartuko dela baieztatu du.
- **Arantza Cuestak, Eusko Ikaskuntzako** zuzendariak, Foro Erregularrean parte hartuko duela eta bertan sartuko dela baieztatu du.
- **Elsa Fuente do Rosariok, Unicef Euskadiko** zuzendariak, Foro Erregularrean parte hartuko duela eta bertan sartuko dela baieztatu du.
- **Gamaker elkarteak** adierazi du proposamena interesgarria dela, baina **ezin duela baieztatu Foro Erregularrean parte hartuko duen**, elkarteko kide guztiek borondatezko lana egiten baitute proiektuan. Epe laburrean ezin dira kide izan, baina etorkizunera begira kide moduan sartzeko aukera aztertuko dute.

## **Horrenbestez, Joseba Terreros, Arantza Cuesta eta Elsa Fuente do Rosario kideak izango dira Foro Erregularraren hurrengo bileran.**

### **5. HARRERA KIDE BERRIEI**

Lantaldeak erabaki du **2020-02-17an Foru Erregularrak bilera bat egingo duela kide berriekin harremanetan hasteko eta haiei harrera egiteko**. Bilera aldi berean egingo da Bilbon<sup>2</sup> (Sareen Sarearen egoitzan) eta Donostian<sup>3</sup> (EGKren egoitzan). Bertan, kide berrien galderari erantzuteaz gainera, prozesua eta OGP Euskadi plana testuinguruan sartuko dira. Besteak beste, honako hauek jorratu dira:

- OGP Euskadi planaren testuingurua: konpromisoak, parte hartzeko egitura.
- Parte hartzeko arazoia: Foro Erregularraren proposamenak egiteko gaitasuna indartzea.
- OGP Euskadi 2020 planaren egoera: elementu orokorrak (ebaluazioa, abuztuan itxiera, ezarpen-fasea...) eta konpromisoen berrikustea.
- 2020-2022 aldirako plan berria: Foro Erregularraren zeregina parte hartzeko prozesua berma dadin (herritarren beharrianak antzeman); hobetzeko proposamena, lehenengo planetik ikasi dena oinarritzat hartuta, eta abar.

**Foro Erregularreko kide guztiei jakinaraziko zaie zein pertsona eta erakunde berri sartu diren; gero, OGP Euskadiren webgunean argitaratuko da prozesu horri buruzko informazioa.**

---

<sup>2</sup> Bilboko bileran parte hartu dutenak: Mikel Barturen (Sareen Sarea), Arantza Otaolea (Foro Erregularraren presidentekidea), Joseba Terreros (AKE) eta Elsa Fuente do Rosario (Unicef Euskadi)

<sup>3</sup> Donostiako bileran parte hartu dutenak: Maialen Olabe (EGK), Arantza Cuesta (Eusko Ikaskuntza) eta Goizalde Atxutegi (Innobasque).

**ABIAPUNTUA**

**IRM txosteneko gomendioak**

- Sarea edo proposamenak egiteko gaitasun teknikoa duten erakundeak, funts publikoen mendekoak ez direnak
- Sozietate zibil antolatuaren ordezkariak

**Foro Irekiaren gomendioak**

- **Mota:** irabazi-asmorik gabeko entitateak, adibidez elkarteak, fundazioak eta erakunde sozialak.
- **Lurralde-eremua:** lurraldeko edo tokiko erakundeak, hurbilekoak izan daitezten.
- **Jarduteko eremua:** sektore-erakundeak (gobernu irekitik harago doazen esparruetako adituak) edo intereseko kolektiboak (normalean parte hartzeko prozesuetan ordezkariak eskasa dutelako).
- **Antolaketa politikoa:** erakundeetan aldaketak sartzen lagun dezaketen erakundeak (alderdi politikoak, auzokoen plataformak, etab.) edo parte hartzeko foro instituzionalizatueta parte hartzen duten entitateak.
- **Gobernu irekiaren aldeko kultura sortzeko ahala:** beste batzuk biltzen dituzten entitateak (sareen edo profesionalen sareak) eta alde zuzeneko esparruan (sentsibilizazioa, kultura, etab.) jarduten duten hezkuntzako eragileak.

**Foro Erregularrak gaur egun duen osaera – lurraldetasuna, generoa eta tipologia**

PERTSONA	ERAKUNDEA	LURRALDEA	GENEROA	TIPOLOGIA
Maialen Olabe	EGK	EAE	Emakumea	Erakunde-taldea
Mikel Barturen	Sareen Sarea	EAE	Gizona	Sareen eta erakundeen taldea
Ana Molina	Mestiza elkartea	Gipuzkoa	Emakumea	Tokiko elkartea
Arantza Otaolea	Bilboko Emakumeen Kontseilua	Bizkaia	Emakumea	Tokiko foroko partaidea
Antxon Gallego	Ibatuz	Bizkaia	Gizona	Enpresa - aditua
Eneko Agirre	Osoigo	Gipuzkoa	Gizona	Enpresa - aditua
Miren Fernández de Landa	Gasteizko Kontzejua	Araba	Emakumea	Tokiko foroko partaidea

## KIDE BERRI MODUAN SARTZEKO PROZESUAREN ZEHAZTAPENA

Gonbidapena eta harrera

- Lehen kontaktua
  - Nork egingo du, kasu bakoitzean
  - Epeak
  - Onartu du / Ez du onartu – Proposamenen hurrenkera
- Aurretiko bilera – Berrikuntzatik harago, nola ezarri testuingurua
  - Nor
  - Zer informazio da garrantzitsua: bilerak egiteko maiztasuna, tokiak, Foro Erregularraren eginkizunak...

## AURREKARIAK – FORO ERREGULARRAREN OSAERARI BUZU JASO DIREN PROPOSAMENAK

### Autohautagaitzen prozesua – 2018ko maiatza

OHARRA - Kendu egin dira Foro Erregularra osatu zuten erakundeak. Bertan utzi dira erantzun ez duten erakundeak eta partaidetza eskuordetu dutenak. Gorriz nabarmendu dira konpromisoren batean zerbitzua eman duten erakundeak, ezin direlako Foro Erregularreko kide izan.

PERTSONA	ERAKUNDEA
Aitzol Batiz	INNKULTURA
Ana Navarri Jaumet	AGADELPRISE
Anabella Barroso	ALDEE
Antonio Campos y Eusebio	HELDUAK ADI
Aurora Herмосilla	EUSKADIKO GGKE-KO KOORDINATZAILEA
Claudia Bohórquez	GAMAKER
Cristina Apiñaniz	EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRAREN KLUSTERRA
Eva Silván	SAVE THE CHILDREN
Francisco Jesús Aloa	GAMAKER
Ivan del Caz	BIKONSULTING
Javier Goikoetxea	BIKONSULTING
Joxe Agustín Arrieta	LA SALLE BEASAIN
Julio Roca	ZUZENAK
Lucía Sarabia	IRSE INCLUSIÓN SOCIAL
Maria José Anitua	ZUZENBIDE KOLABORATIBOKO EUSKADIKO ELKARTEA
María José Cano	FEDEFES
Mikel Cabello	GLOBERNANCE
Miren Gutierrez	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
Nuria Bustamante	
Pablo Moratalla	EHLABE
Pablo Rey	
Ramón Ibeas	CÁRITAS VITORIA
Ricardo Antón	COLABORABORA
Roberto Gómez de la Iglesia	C2 + I
Roberto San Salvador	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
Susana Sucunza	ZUZENBIDE KOLABORATIBOKO EUSKADIKO ELKARTEA
Txema Franco	LANTEGI BATUAK
Txema Odriozola	FEDERPEN

## Foro Irekia – proposamenak – 2019ko ekaina

### Honako hauek dira bileran aipatu ziren erakundeak:

- Fundazioak eta GGKEak, gai jakinetakoak barne (Internet Euskadi, adibidez).
- Hausnarketa egiteko foroak dituzten erakundeak, ilustrazioaren ordezkari diren bazkideek osatuak (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País/Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, etab.).
- Hirietako barrutietan dauden kontseiluak eta, udal mailan, auzokoen plataformak edo herritarren batzordeak.
- Lurraldeari lotuta dauden erakundeak, baldin eta prozesuetan ordezkaturik ez badaude edo horietan parte hartzen ez badute.
- Garrantzitsua da “zeharkako” erakunde gehiago erakartzea: adina, jatorria, generoa, enpresak edo sindikatuak, unibertsitateak.
- Gizarteratzeko dauden sektoreak ordezkatzeko dituzten erakundeak (ekarpen kualitatiboa) eta gutxiengoan daudenen taldeak: feministak, LGTBI, gaixoak, ekologistak, presoak, etorkinak, etab.
- Hezkuntzako erakundeak: ikasleen elkartek, irakasleak, ikasleen gurasoen elkartek eta unibertsitateko kolektiboa.
- Gazteen mugimenduak: eskautak, gaztetxeak, etab.
- Ekintzaileen taldeak: teknologia, zientzia, ingurumena, hazkuntza, elikadura, etab.
- Alderdi politikoak (hauteskundeetara aurkezten diren talde independenteak barne).
- Erakundeei laguntzen dieten eragileak eta politika publikoei lotuta daudenak.
- Arartekoa.
- Gobernantza-eredu berriak (elkarlanean oinarritutako jardunak, komunitate irekiak, etab.) sustatzen dituzten entitateak, hala nola Wikitoki edo Bilbao Data Lab.

## Foro Erregularra – proposamenak – 2019ko urria

- Interesgarriak izan daitezkeen erakunde batzuk aipatu dira: hezkuntza arlokoak (adibidez gurasoen elkartek, unibertsitatea...), auzo-elkarteen koordinakundeak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak, landa-ingurua (Arabako Kontzejuen Elkarte AKE), eta abar.

## GONBIDAPENA KIDE BERRIEI (2020-01-30ean bidali du Arantza Otaoleak)

### BIDALI ZEN MEZU ELEKTRONIKOARI ERANTSITAKO INFORMAZIOA

#### ZERGATIK OGP EUSKADI

**Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership – OGP)** Euskadi aukeratu du Tokiko Gobernuen Programan parte har dezan, mundu osoko eskualdeen artean beste 20rekin batera. Hautagaitza batera aurkeztu zuten Eusko Jurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru-aldundiak eta Gasteizko, Donostiako eta Bilboko Udalek, eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Matia Fundazioak, EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Euskadiko Elkarlan Zuzenbidearen Elkarteak ere babestu dute. Gobernu Irekirako Aliantza erreferentziako nazioarteko erakunde bat da eta gobernu “irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak” sustatzeko tresnak garatzea eta ebaluatzea da bere helburua.

#### ZER EGIN BEHAR DA OGP SAREAN PARTE HARTZEAGATIK

Gobernuek konpromisoa hartzen dute bi urterako ekintza-plan bat ezartzeko, sozietate zibilarekin garatu beharreko konpromiso zehatzekin (herritar antolatuek, antolatu gabeak, enpresak, hirugarren sektorea...), gobernu irekian aurrera egiteko (gardentasuna, kontuak ematea, parte-hartzea, etab.). Plana sozietate zibilarekin batera diseinatu behar da, eta OGPTik independentea den talde ebaluatzaile batek ebaluatuko du (IRM mekanismoa), bai diseinuan bai gauzatzean.

#### ZER KONPROMISO BETE BEHARKO DITUGU OGP EUSKADI PLANAREN ONDORIOZ

2018an diagnostiko instituzional bat eta sozietate zibilarekin batera diseinatzeko prozesu bat egin ondoren, Euskadirentzat 5 konpromiso dituen plan bati ekitea adostu da. Guztien helburua da hiru maila instituzionaletan gobernu irekiaren esparru partekatua sortzea, eta esparru horiek kontrastatzeko proba pilotuak (edo testeatzeko proiektuak) ere biltzen dituzte. Honako hauek dira 5 konpromisoak:

1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez
2. Open data eta linked data
3. Herritarren partaidetzako berrikuntza-laborategia
4. Open Eskola, herritarren eskola irekia
5. Integritatearen euskal sistema

Planaren esteka jasotzen da beheerago; bertan azaltzen dira zergatik aukeratu diren konpromiso horiek, nork zuzenduko dituen eta zein izango diren gertaera garrantzitsuenak: [https://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc\\_plan\\_accion/eu\\_def/adjuntos/cocreacion\\_plan/Ekintza%20Plan%20hiritar%20bertsioa.pdf](https://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_plan_accion/eu_def/adjuntos/cocreacion_plan/Ekintza%20Plan%20hiritar%20bertsioa.pdf)

#### NOLA ANTOLATZEN DA PLANAREN HEDAPENA

Konpromiso bakoitza erakunde batek edo batzuek zuzentzen dute, eta, gainera, KONPROMISO-TALDE bat du (administrazioak, adituek eta herritarrek osatua), 5 konpromisoetako bakoitza garatzeko. Webgunean ([www.ogp.euskadi.eus](http://www.ogp.euskadi.eus)) eskura daiteke talde bakoitzean sartzen diren erakundeen gaineko informazio guztia.

**Planaren jarraipen orokorrari dagokionez, lantalde bi daude:**

- Talde sustatzailea. Honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritza, 3 foru-aldundiak, 3 hiriburu-udalak eta Innobasque. Taldearen eginkizun nagusia da planerako zer baliabide behar diren zehaztea, eta konpromisoetan ematen diren akordioaren inplementazio politikoa erraztea.
- Foro Erregularra. Foro horretan parte hartuko duzue. Foroak planaren jarraipena orokorra egiten du, eta ezarri diren konpromisoak eta aurreikusi diren epeak betetzen direla zaintzen du. Foro horretan, konpromisoen liderrek kontuak ematen dituzte eta irekiera-uneei buruz erabakitzen dute (zein unetan aktibatu behar diren parte hartzeko espazio berriak, Foro Irekia deitzen dugun hori).

Foro hori (% 50) erakunde publikoetako arduradunek eta gizarte zibileko ordezkariak osatzen dute, eta lehendakaritza bikoitza du: Luis Petrikorena (Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekiaren zuzendaria) eta Arantza Otaolea (sozietate zibilaren arduraduna). Halaber, idazkaritza bikoitza ere badu: Koldobike Uriarte, planaren koordinatzailea, alderdi publikoaren idazkaritza teknikoari dagozkion zereginak betetzen ditu. Eta Goizalde Atxutegi, Innobasquekoa, herritarren parte-hartzean laguntzen du.

### ZERGATIK SARTU PERTSONA GEHIAGO FORO ERREGULARREAN

IRMk (OGP Euskadi planaren talde ebaluatzaileak) identifikatutako hobekuntzetako bat da Foro Erregularrak bere funtzioa bete dezan **beharrezkoa dela sozietate zibilak proposamenak egiteko eta planari jarraipen zuzena emateko gaitasun handiagoa izatea**. Azken Foro Erregularrean gai hori jorratu zen, eta **bi ekintza** ezartzea erabaki zen:

- Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, Foro Erregularra baino lehen bilera bat egitea herritarren ordezkariekin, gaiak lantzeko.
- Pertsona/Erakunde berriak sartzea planean, ikuspegi eta proposamen berriak ekar ditzaketenak.

### ZER DAKAR FORO ERREGULARREAN PARTE HARTZEAK?

- Gutxienez behin parte hartu behar da Foro Erregularrak, planaren kontuak emateko eta jarraipena azaltzeko, egiten duen hiru hilez behingo bileran. Sozietate zibila ordezkatzeko duten foroeko kideek beharrezkotzat jotzen dutenetan, alde aurretik biltzea.
- Plana betetzen dela eta herritarrek planaren ezarpenean (eta etorkizuneko planaren diseinuan) parte hartzen dutela zaintzea.
- Laneko dokumentuak posta elektronikoz kontrastatzea, hala eskatzen denean, eta ideiak eta iritziak ematea.
- Ahal den neurrian, planaren bilera orokorretan (Foro Irekietan) parte hartzea.